

## ELHUYARREN LEHEN 25 URTEAK

**K**ultur ospakizunetan hain oparo suertatzen ari den urte honetan, Elhuyar Kultur Elkarteari ere bere txanda iritsi zaio. Aurtentzen dira 25 urte *Elhuyar Taldea* sortu zela, Donostiako Goi Mailako Injineruen Eskolako zenbait ikasle eta ikasle ohiren ekimenez sortu ere 1972an. Hori dela eta, euskal kultura, gizarte eta politikako kideekin eta hainbat euskaldun lagunekin bat egin nahi izan du Elhuyarrek ospakizun honetan.

### Historia laburra

Ez da erraza 25 urteko historia eta gora-beherak lerro bakar batzuetan laburbiltzea, baina zertzelada batzuk nahikoa izan litezke ibilbidearen nondik norakoak ezagutzeko. Euskara zientzia eta teknika mundura hedatzea zen sortzaileen helburu nagusia. Euskara ohiko esparruetatik (etxe eta familia girotik) atera eta gizarteko beste zenbait alorretara (zientzia, irakaskuntza, teknologia, ...) hedatzearen premia nabaria zen garaietan sortu zen. Elhuyar anaia zientzialari lapurtarrei ohore egiteko hartu zuten hauen abizena lan-taldearen izentzat. Garai hartan, euskalgintzan jarduteko lege aldetik ez zen giro aproposa eta Euskalerriko Adiskideen Elkartearen babes paregabea lortu zuen Elhuyarrek.

Hasierako taldetxo hartara gero eta jende gehiago bildu zen eta beste zenbait erakunderekin (UEU, Euskaltzaindia, UZEI, etab.ekin) elkarlanean ere hasi zen. *Zientzia eta Teknikarako Hitzen Bilduma* (50.000 hitzez osatutako hiztegia, 1976-78), liburuak eta hiru hilabetetik behin kaleratutako aldizkariak gain,

bidezkoa bada ere, gaur egun eta, batez ere, etorkizunari begira dituen asmoak azaltzeko une aproposa da hau. Arestian aipatu bezala, bidea ireki eta aitzindari izan da zenbait alorretan, horrek dakarren esfortzu eta ahaleginarekin, eta gaur egun oraindik zabalik ditu bide horiek; hor daude, esaterako,

✕ *Elhuyarren 25. urteurrenera euskal gizarteko lagun asko hurbildu zen.*



langileak trebatzeko euskara teknikoko ikastaroak eman ziren hasieratik: ikus daitekeen bezala, alor askotan aitzindari izatea tokatu zaio Elhuyarri. 1981ean lagun-talde izateari utzi eta berezko izaera juridikoa lortu zuen *Elhuyar Kultur Elkarte*a bihurtuz. 1984an Onura Publikoko aitormena eman zion Eusko Jaurlaritzak.

### Elhuyar etorkizunari begira

Elhuyarrek nondik norako bidea egin duen azaltzea

zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako aldizkari hilerokoa, eskola-maila desberdinetarako testuliburuak eta lan-arlo desberdinetako langileak trebatzeko euskara-ikastaroak. Elhuyarren helburuetako bat izan da beti gizarteak momentu bakoitzean dituen beharrei erantzutea eta euskara hizkuntza moderno guztien pare jartzea; hori dela eta, bere garaietan, hiztegi gintzari, euskara teknologia berrietara hurbiltzeari eta lan-mundua euskal-

### SUMARIOA

- 1 Elhuyarren lehen 25 urteak
- 2 Laburrak  
Sorne Unzueta *Utarsus*  
Kontuan hartzeko
- 3 1997: Udaletako euskara zerbitzuei bultzada
- 4 Izen-abizenez  
Euskararen Legea: 15 urte  
Lehen begiratuan

duntzeari heldu zion. Etorkizunari begira, eta gizartearen beharrak horrela eskatzen duelako, euskara teknologia berrietan eta lan-munduan garatzen ezarri ditu lehentasunak.

### Elhuyar galaz jantzita

Lanak lan eta eginkizunak eginkizun, urriaren 31 egun handia izan zen Elhuyarrentzat. Euskara eta, oro har, kultura-alorrean ez du edozeinek 25. urteurrena ospatzeko aukera izaten eta, horrexegatik, egun handizat hartu zuen Elhuyarrek aukera hori. Ospakizun hori aitzakia hartuta, hitzaldi bat prestatu zuen *Unibertsorearen iragana, oraina eta geroa* izenburupean eta Antony Hewish-en, 1974.eko Fisikako Nobel saria jaso zuen fisikariaren, eskutik. Hitzaldira euskal gizarteko, kulturako eta politikako lagun asko hurbildu zen. Elhuyarrekiko konfidantza eta leialtasuna eskertzeko arratsalde goxoa pasatzeko aukera eskaini zitzaion bertara hurbildutako guztiei.

**LABURRAK**Euskara kartara!  
Deba Garaiko Jatetxe Gida

Deba Garaiko euskara-elkarteen elkargoak, Debagunek, *Euskara karatara! Deba Garaiko Jatetxe Gida* kaleratu du. Bailaran euskararen normalkuntza lortzea da elkarte honen helburua; ostalaritza inguruan jende asko mugitzen dela eta, lehentasuna eman dio arlo honetan eragiteari. Eskualdeko jatetxe guztiei eskaini zitzaizen gidan sartzeko aukera, baina karta euskaraz ezartzeko borondatea azaldu dutenak baino ez daude; 100 jatetxe daude bertan, bailarako % 95. Gidarekin batera kartak euskaratzeari ekin zaio eta sei hilabeteren epean ostalaritzan ere euskarak merezi duen tratamendua izango duela espero da. Jatetxe bakoitzaren helbide, telefono, ordutegi, prezio eta abar biltzeaz gain, kartetako jaki-izenekin osatutako izendegia dago. Antzuola, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Gatzaga eta Oñatiko udalen eta Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker kaleratu da gida.

**Literatura Unibertsala**

Azaroaren 6an aurkeztu ziren Donostian *Literatura Unibertsala* saileko lau liburu berri; azken hauekin 65 dira jada itzultitakoak. Cesare Pavese-ren *Bizitza Lanbide*, Maite Lopetegi Canpanok itzulia; Henry James-en *Europarrak*, Irene Aldasorok itzulia; Daniel Defoe-ren *Robinson Crusoe*, Aintzane Ibarzabalek itzulia eta Graham Greene-ren *Giza Faktorea*, Iñaxio Lopez de Aranak itzulia dira aurkeztutako lau liburuak. Sail honekin literatura unibertsalaren historian adierazgarri izan diren lanak irakurle euskaldunen esku jarri nahi dira. Itzulpen hauek euskararen normalizazioan eta itzulpengintzaren ikuspegitik duen garrantzia azpimarratu zuten aurkezpen-ekitaldian EIZIEko, Ibaizabal argitaletxe eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzako ordezkariak.

**Sorne Unzueta**  
*Utarsus*

**S**orne Unzueta idazle bilbotarra, *Utarsus* izengoiti az eguna, 1900. urtean jaio zen. Hamasei urte zituela abertzaletasunera hurbildu zen eta euskara ikasi zuen; harrezkero euskaraz jardun du bere lanetan. Espainiako Gerra Zibilean, 1937an, Frantziara joan behar izan zuen familiarekin eta erbestean hainbat urte eman zituen Erresistentziarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lanean. 1953an Euskal Herrira itzuli eta 1968an Getxon finkatu zen. Bizkaiko Foru Aldundiak zabalduetako auzo-ekoletan aritu zen klaseak euskaraz ematen; auzo-eskola hauek herrigunetik aldentuta zeuden auzoetan ipini ziren bertako umeak eskolatzeko erraztasunak ematearren. Sorne Unzueta eskola hauetako lehenengo irakasleetakoa izan zen eta, besteak beste, Gamiz,

Berango, Lemoa eta Bedian eman zituen eskolak. Gizarteko beste arlo askotan ere jardun zuen; besteak beste, *Emakume Abertzale Batza* taldeko kide eta partehartzaile aktiboa izan zen eta hainbat mitin eman zituen emakumearen eskubideak eta emakumearen gizarteratzea aldarrikatuz. 1931n ekin zion idazteari, euskaraz idazteari; poesia idatzi du gehienbat, baina ipuin eta bestelako artikulua ere baditu. Bere lanetan euskararen eta Euskal Herriaren aldeko jarrera eta bere barneko sentimenduak azaldu ditu. Gerra aurreko abertzaletasun-giroan hasi zen idazten eta aberria eta euskal arrazaren erreferentziak eta Sabino Aranaren ideologia nabariak dira bere obran. Garai hartako idazle askoren antzera aldizkarietarako lan asko



Labayru Ikastegiaren Argazki Artxiboa

egin zituen; batik bat, *Euzkerea* eta *Bizkaitarra* aldizkari nazionalistetan kaleratu zituen bere lanak. Urteetan zehar idatzi eta argitaratutako lanak batu dituen *Idazlan Guztiak* liburua kaleratu zuen joan den urrian; 50 bat poema, narrazio eta artikulua biltzen dira bertan eta, irakurketa erraztearren, gaur egungo euskarara egokitu dira testuak, errima edo informazioa galtzen ez den neurrian. Labayru Ikastegiaren eta Bilboko Udalaren laguntzaz kaleratu da.

**KONTUAN HARTZEKO****Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka**

Durangoko 32. Euskal Liburu eta Disko Azoka, hau da, euskarazko produkzioaren topagune dena, abenduaren 5etik 8ra bitartean izango da. Aurten Antoine D'Abbadiaren heriotzaren urteurrena ospatzeari begira, hainbat ekitaldi izango da. Argitaletxeek azalduetako nobedadeez

gain, hitzaldiak eta lan-aurkezpenak ere izango dira Durangon egun hauetan. Iazko antzera, aurten ere toki-aldaketa izango da eta Durangoko Olma paraje-an kokatuko da aurten karpia. 4.200 m<sup>2</sup> izango ditu eta 210 erakusmahai inguru jarriko dira argitaletxeek bere lanak erakus ditzaten.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

Abenduaren 1etik 14ra bitartean Donostian (Okendo eta Lugaritz Kultur Etxeetan)

Abenduaren 19tik 31ra bitartean Barakaldon (Gurutzea Kultur Etxean)


# 1997: Udaletako euskara zerbitzuei bultzada

**1** 982an Euskararen Legea eman zenean, administrazioa herritarren hizkuntz eskubideen berme bihurtu zen. Euskararen Legeak administrazioei ezarritako betebeharrak nagusia, berriz, herritarrekiko harremanetan euskara eta gaztelania erabiltzea da. Eginbehar berri horren aurrean, administrazio batzuek itzultzailea hartu zuten, beren langileek gaztelaniaz sortutakoak euskaratzeko. Itzultzaile horiei esker, urteen joan-etorrian hartutako esperientziaren poderioz administrazioa hizkera egokitu da euskaraz, eta ondorioz, gaur egun, administrazioaren eginkizunak euskaraz bideratzeko hizkera prest dagoela esan daiteke. Beste administrazio batzuek, berriz, elebitasuna bermatzea baino zerbaite gehiago egin beharraz jabeturik, bai administrazio barruko bai herriko hizkuntz normalizazioaren ardura teknikoak izango zuten langileak kontratatzeari ekin zioten. Eta badira, azkenez, euskararen inguruan lan egiteko inolako

langilerik ez duten udalak. Euskarak udal administrazioan behar zuen azpiegitura teknikoak modu desberdinetara ulertu zen, beraz, eta horren isla besterik ez da gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko euskara-zerbitzuen artean dagoen homogeneotasun falta, kasu batzuetan, eta gabezia, beste askotan. Beste alde batetik, administrazioak badu bere baitan euskararen erabilera normalizatzeko eman berri den tresna bat, 86/1997 Dekretua alegia, eta bertan euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta ebaluatu beharra ezarri zaie herri-administrazioei. Erabilera-planei dagokienez, Hizkuntza Politikarako Sailordetzarentzat, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izan dadin beharrezkoak diren arauak ezezik euskara erabiltzeko beharrezkoak diren baldintzak egokitu behar dira, tokian tokira moldatuz. Hori guztiori bideratzeko, arduradun politikoaren jarraipen-lanekin

batara ezinbestekoa gertatzen da teknikariaren interbentzioa, plana egin, gauzatu eta ebaluatzeko. Egoera berri honen aurrean ahalegin berezia egin du Hizkuntza Politikarako Sailordetzak azpiegitura teknikorik ez dagoen tokietan gutxienez sortzen; izan ere, aurten bertan hogeita bederatzitik udalek eskuratu dute euskara-teknikaria, Lea-Artibai Mankomunitateko 11 udalek, Txorierriko 6 udalek eta Uribe-Kostako 6 udalek, batetik, eta Bakio, Barakaldo, Getxo, Arrigorriaga, Azpeitia eta Azkoitiako udalek, bestetik. Lehenengoko Euskararen Aholku Batzordeak egindako gomendioa zen, eskualdekako edo mankomunitateko euskara-zerbitzuak bultzatzea. Eusko Legebiltzarrak ere, aipaturiko dekretuaren oinarriak onartu zituen egunean beste horrenbeste eskatu zien Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei.

## EUSKARA ZERBITZU BERRIAK



■ 1997 BAINO LEHENAGOKOAK  
■ 1997an SORTUTAKOAK  
□ ZERBITZURIK EZ

AMOROTO  
ARRIGORRIAGA  
AULESTI  
AZKOITIA  
AZPEITIA  
BAKIO  
BARAKALDO  
BARRIKA  
BERRIATUA  
DERIO  
ETXEBARRIA  
GETXO  
GORLIZ  
GIZABURUAGA  
ISPASTER  
LARRABETZU  
LEMOIZ  
LEZAMA  
LOIU  
MARKINA-XEMEIN  
MENDEXA  
MUNGIA  
MUNITIBAR  
NABARNIZ  
PLENTZIA  
SONDIKA  
SOPELANA  
URDULIZ  
ZAMUDIO



**Jon Kortazar Uriarte**

Jon Kortazar idazle eta irakaslea, Mundakan jaio zen 1955ean. Filologiako ikasketak egin zituen. 1992.az geroztik EHUko katedraduna da. 1983az geroztik euskaltzain urgazle da. Ahozko literatura eta XX. mendeko euskal literatura irakasten ditu unibertsitatean. Euskal literaturaren kritikan espezialista da; literatura garaikidea eta, bereziki, poesia sakonki aztertu duen bakanetakoa da. Euskal aldizkarietan iritzi-artikuluak kaleratzeaz gain, liburuak ere idatzi ditu: *Mikel Zarateren prosa* (1981), *Lauaxetaren Olerkiak* (1985),

*Laberintoaren oroimena* (1989), *Literatura vasca del siglo XX* (1990). *Bidean izan zen, Rosapen* liburua idatzi zuen 1982an. 1997an *Euskal literaturaren historia txikia* (lankidetzan), *Leiho oihalen mugetan*, Joan Mari Lekuonaren poesiari buruz, eta *Luma eta Lurra* liburuak argitaratu ditu, euskal literaturari buruzko ikerketa edota kritika oinarri hartuta. Azken hau Madrilgo Liburutegi Nazionalen aurkeztu zuen azaroaren 5ean. 1980.eko hamarkadan kaleratutako euskal poesiaren azterketa eta azalpen luzea da liburu honen muina.

**Miriam Urkia Gonzalez**

Miriam Urkiak *Euskal morfologiaren tratamendu informatikorantz* izeneko tesia defendatu zuen Gasteizen, EHUko Filologi Fakultatean, 1997ko uztailean. Morfologia konputazionalaren barruan euskal flexio-morfologiaren tratamendu automatikoaren inguruko hainbat gora-behera eta jakin beharreko aztertu ditu bere tesian. Miren Azkarate euskaltzain eta EHUko Irakaslego errektoreordea izan zen tesiaren zuzendaria eta epaimahai-buru Patxi Goenaga. Defentsa egin ondoren,

euskaraz egin ere, gai cum laude nota jaso zuen. Miriam Donostian jaio zen 1965ean. Euskal Filologia Deustuko Unibertsitatean ikasi eta doktoretza EHUen egin zuen. 1983an UZELn hasi zen batik bat lexikografia sailean. 1992tik sail horretako arduradun da, batez ere EEBSren eguneraketan eta Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko Lantalderako prestalanean. 1997tik Hiztegi Batuko Lantaldeko kide da. EHUko Informatika Fakultateak eta UZEIk elkarrekin dituzten Hizkuntza Naturalaren



Prozesamendurako proiektuetako partaide da eta proiektu horren ondorio diren analizatzaile morfologikoa, XUXEN zuzentzaile ortografikoa eta EUSLEM lematizatzailean ere partaide da.

**Euskararen Legea: 15 urte**

Hamabost urte bete dira oraintsu Legebiltzarrak Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legea onartu zenetik. Legeak Euskal Autonomi Erkidegoko biztanleen hizkuntza-eskubideak jaso eta herri-aginteen betebeharrak zehaztu zituen. Legea, tresna egokia eta baliogarria izan dugu urteotan; horren erakusgarri da elebidunen hazkunde handia; hazkunde hori lagunarteko euskararen erabileran antzematen hasia da dagoeneko, gero eta handiagoa baita euskaldunen dentsitatea lagunartean. Beraz, euskararen galera inbertitu egin da eta familia bidezko jarraipena hazten doa, apurka-apurka, baina eten gabe. Bestalde, euskara ezezagunak edo gutxi urratuak zituen esparruetara iritsi da: komunikabideak, irakaskuntza, administrazioa, etab. Datozen urteei begira, Euskararen Aholku Batzordea egiten ari den Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, izango da euskararen normalizazioan aurrera egiteko tresna baliotsua, helburuak adostu, alorrez-alorreko jarduera-egitarauak egokitu eta ebaluaziorako irizpideak ezartzeko. Halaber, herri-erakundeen arteko eta herri-aginteen nahiz gizarte-ekimenaren arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak eta bideak emango dizkigu.

**Josune Ariztondo**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Lehen begiratuan**



**Euskararen Erabilera Lan Munduan. Erabilera Planen Metodologia.**

izenburupean argitaratutako liburuxka honetan, lan-munduan euskararen erabilera gai hartuta 1996ko abenduan eginiko mintegian aurkeztutako txostenak bildu dira. Enpresa pribatuetako mikroplanak eta herri-administrazioakoak bereizita bi ataletan banatu da; atal bakoitzean mikroplana egin duen elkarte edo erakunde bakoitzaren txostena agertzen da. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren eskutik kaleratu da.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailordetza**

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

Lege-gordailua: VI-572-1992  
ISSN: 1138-3038

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

© Hizkuntza Politikarako Sailordetza

